

Astea pasatu da, etxera joateko prest zaude. Ospitaletik irteten zarenean inutil hutsa sentitzen duzu zeure burua. Bazkaria ahora eman ondoren, hortzak garbitu behar dizkizute, gero janzten lagundu... den-dena egin behar dizute. Egunak pasatu ahala gauzak errazago egin ahal dituzu, baina oraindik ezin duzu askorik egin logikoa denez. Hilabetea igeltsuarekin igaro duzu, baina sufrimendua ez da bukatu, erreabilitazioa datorkizu.

Orain arte, berreskuratzeke ariketak ondo zihoazen. Baina gaur min diferentea sentitu duzu, min sakona, gogorra, eskumako besoan. Eta hori ez da guztia, sukarrarekin zaude, dezima batzuk. Ospitalera joatea pentsatu duzu. Autobusa hartu eta hara abiatu zara. Hango aurpegi guztiak serioak dira, ez daukate berri onik. Infektatuta duzula esan dizute. Eta hori ez da batere ona, ez horixe. Berriro ebakuntza egin behar dizute.

Ebakuntzatik ateratakoan, Agurtzane maitea negarrez duzu. Eskumako alderantz jiratu duzu zure burua eta ukondoa besterik ez duzu ikusten.

• • • • •

"Ezbeharra"

Libe Larrabeiti Blanco

13 urte - Derio

2013 - D kategoria

1. saria

• • •

